



DIRU SARRERAK

SALMENTA AURREKONTUA

- Kostuen aurrekontuak

Kontuan izanda **Euskadin 967.782 etxebizitza** daudela, hasteko horietako **%2.5era heltzea** erabaki dugu, beraz **24.194 etxeetara**.

Kamera + instalatzearen zerbitzua 1030€ balio du, beraz **24194 etxebizitzetan** instalatuko baditugu **24.919.820€ gastatuko** ditugu. Honi postontzien gastuak gehitu behar diogu, postontziak + instalatzearen zerbitzua **guztira 300€** kostatzen zaigu eta **8470 etxeetara** heldu nahi dugu beraz **2.541.000€ gastatuko** ditugu. Bien **gastuak guztira 27.460.820€** dira.

- Kobratuko duguna:

Etxebizitza bakoitzean **zerbitzua instalatzea 1266€ kobratuko diegu** bezeroei, eta **kamera/eskanerra 38€**, guztira **1304€ kobratuko diegu kameraren zerbitzua**. Beraz, **31.548.976€ guztira irabaziko** ditugu (gastatutakoa kontuan izan gabe). Kalkulatu duguna **%26'6-ko mozkina** ateratzeko da.

Berezitasun bezala postontzien kontua daukagu, gure **zerbitzua instalatuko dugun etxeetatik 35%-an jarriko ditugu postontziak**, hau da **8470 etxeetan**. **Postontzia 120€** kobratzen dugu eta **instalatzeak 240€** (guztira postontziaren zerbitzua 360€), daukagun mugara helduz **3.049.200€ irabaziko** genituzke (berriro kontuan hartu gabe gastatutakoa). Hori **%20-ko mozkina** izango litzateke.

- Mozkina:

Irabazitakoa kalkulatzeko ondorengoa egin dugu: gure **kostuak guztira 27.460.820€** dira, eta **sarrerak 34.598.176€**, beraz, sarrerak ken gastuak eginda **7.137.356€-ko mozkin** garbia aterako genuke.

ITURRIAK: DIRU-LAGUNTZEN FUNTSAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko dirua oso handia da, beraz behar dugun diru-laguntza bide ezberdinak erabiliko ditugu. Horrela hilabete horretan irabazitako dirua hurrengo hilabetean inbertituko genuke eta beharko dugun mailegua txikiagoa izango litzake.



DIRU SARRERAK

- Mailegua

Maileguan kontratu baten bidez finantza erakunde batek diru kopuru bat jartzen du bezeroaren esku. Guk **500.000€-ko mailegua** eskatuko diogu.

- Business angel

Business angelak inbertitzaileak dira. Bere dirua, interesgarria iruditzen zaion negozioan sartzen du eta gainera bere jakinduria ekintzaileekin partekatzen du.

Guk, dirua lortzeko, Eneko Knor (<https://enekoknorr.com/>) izeneko business angelari gure produktuari buruz hitz egingo genioke eta gure proiektuan inbertituko du. 50.000€ inbertsioa egingo duela esan digu.

- Crowdfunding

Sistema hau nahiko berria da eta pertsona askoren baterako ahaleginetan oinarritzen da. Pertsona hauek baliabide ekonomikoak jartzen dituzte beste pertsonak edo erakundeak sorturiko proiektua aurrera irten dadin.

Sistema hau dirua ziurtatzen ez duenez gero, diru gehigarria ipintzeko dirua lortzeko erabiliko dugu.

Sistema honen funtzionamendua hurrengoa da: <https://www.verkami.com/> orrialdean gure produktua jarri eta jendea dirua inbertitzeko zain egon beharko gara.